



A K T A

Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** egindako ezohiko bilkurarena,

2020ko abenduaren 4koa

Bideokonferentzia bidez, **08:40ak direnean**, jarraian zerrendatzen diren batzarkideak elkartu dira **ezohiko bilkura egiteko, lehen deialdian**. Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko presidente **Encina Castresana Astarloa andrea** izan da bilkuraren burua, eta Gianfranco Ghirò Alonso jauna, behean izenpetzen duena, aritu da behin-behineko idazkari-lanetan.

Jarraian aipatutako jaun-andre batzarkideak konektatu dira bideokonferentziara:

Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)

Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)

Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)

Txerra MOLINUEVO LAÑA jn. (EAJ-PNV)

Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)

Ez da bertaratu eta ez etortzea justifikatu du honako jaun batzarkide honek:
Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Bilkura modu telematikoan egin da, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetatik bigarrenean ezarritakoaren arabera. Horren bidez, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen da, eta 46. artikuluari beste atal bat gehitzen zaio, 3. atala, hain zuzen ere. Horrek organo honi bilkurak modu telematikoan egiteko aukera ematen dio, COVID-19ak eragindako gaur egungo salbuespeneko osasun-egoera aintzat hartuta.

Kuadrillako presidente andreak, **lehenengo deialdian, 08:40an**, osoko bilkura irekita dagoela adierazi du, eta, behin-behineko idazkariak bilkura abiarazi ahal izateko quoruma badagoela egiaztatu ondoren, Kuadrillak arautzen dituen Foru Arauaren (azaroaren 20ko 63/1989 Foru Araua) 25. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, besteak beste abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazitako Toki Araubidearen



Oinarriak arautzen dituen Legearen (apirilaren 2ko 7/1985 Legea) 46.2.c) artikuluari lotuta. Halaber, agindu du ezarritako gai-zerrendari jarraituko diotela.

1.- 2020-21eko EKUALDEKO ENPLEGU-PLANAK ESLEITZEKO PROPOSAMENA ONESTEA

Ghiro jaunak, sustapen ekonomikoko teknikariak, honako hau azaldu du:

2020-21eko Eskualdeko Enplegu-planen eskaeraren ebazpena azaroaren 30ean jaso zen Kuadrillan, eta eskatutakoaren % 100 emango da:

UDALEKO ENPLEGU-PLANAK

	DIRULAGUNTZA
LAUDIO	125.000,00 €
AMURRIO	161.500,00 €

286.500,00 €

	DIRULAGUNTZA
AIARA	50.000,00 €
ARTZINIEGA	37.500,00 €
OKONDO	37.500,00 €
URDUÑA	25.000,00 €
	150.000,00 €

436.500,00 €

KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK

AIARAKO KUADRILLA (LAUDIO IZAN EZIK) ETA URDUÑA UDALERRIA

	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	10	9.000,00 €	90.000,00 €
SEI HILABETEKO KONTRATAZIOAK	12	6.000,00 €	72.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	10	3.000,00 €	30.000,00 €
			192.000,00 €

LAUDIOKO UDALA



	PERTSONAK	DIRULAGUNTZA	GUZTIRA
KOLEKTIBO BEREZIEN KONTRATAZIOAK	2	9.000,00 €	18.000,00 €
SEI HILABETEKO KONTRATAZIOAK	4	6.000,00 €	24.000,00 €
LANALDI ERDIKO KONTRATAZIOAK	2	3.000,00 €	6.000,00 €
			48.000,00 €

Kontrataziorako laguntzei dagokienez, Tokiko Gobernu Batzarrak urrian onetsitako oinarriak zuzendu egin dira LANBIDEREN gomendioei jarraituz, eta ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Jarraian, eskualdeko enplegu-planeko bost taldeen lizitazioen bost kontratazio-mahaiek egindako prozesua azaldu du, baita bost esleipen-proposamenena ere, abenduaren 3ko akten arabera.

Azterketa egin eta zalantzak eta argibideak argitutakoan, aho batez ADOSTU DA honako ERABAKI hau hartzea:

IKUSI DA enpresa bakar bat aurkeztu dela bost lizitazioetara, **SARTU ÁLAVA GIZARTERATZE ELKARTEA**, eta Adituen Batzordeak egindako aktan eta formularen aplikazio automatikoan oinarrituta, puntu hauek lortu ditu lizitazio bakoitzean:

	<u>ESPEDIENTEA</u>	<u>LIZITAZIOA</u>	<u>PUNTUAK</u>	<u>ESKAINNTZA</u>
Amurrio 1. taldea	621 2020/14/S02.01.03.02	95.946,29 €	88,5	95.900,00 €
Amurrio 2. taldea	622 2020/15/S02.01.03.02	93.573,19 €	89	93.500,00 €
Amurrio 3. taldea	623 2020/16/S02.01.03.02	42.858,67 €	88,5	42.800,00 €
Laudio 1. taldea	619 2020/12/S02.01.03.02	94.000,00 €	88,5	93.900,00 €
Laudio 2. taldea	620 2020/13/S02.01.03.02	94.000,00 €	89	93.900,00 €

ERABAKI DA:

LEHENENGOA.- Lizitatutako bost kontratazioak **SARTU ÁLAVA GIZARTERATZE ELKARTEA** enpresari esleitzea, zenbateko hauen arabera:

	<u>ESPEDIENTEA</u>	<u>ESLEIPENA</u>
Amurrio 1. taldea Mendia	621 2020/14/S02.01.03.02	95.900,00 €
Amurrio 2. taldea Hiria	622 2020/15/S02.01.03.02	93.500,00 €
Amurrio 3. taldea	623 2020/16/S02.01.03.02	42.800,00 €
Laudio 1. taldea	619 2020/12/S02.01.03.02	93.900,00 €
Laudio 2. taldea	620 2020/13/S02.01.03.02	93.900,00 €



BIGARRENA.- SARTU ÁLAVA GIZARTERATZE ELKARTEA enpresari jakinaraztea eta bost kontratazioak formalizatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko eskatzea.

TERCERO.- Parte hartzen duen udal bakoitzari programa bakoitza finantzatzeko beharrezko ekarpenak eskatzea, taula honen arabera:

	<u>ESLEIPENA</u>	<u>DIRULAGUNTZA</u>	<u>EKARPENA</u>
Amurrio 1. taldea Mendia	95.900,00 €	62.500,00 €	33.400,00 €
Amurrio 2. taldea Hiria	93.500,00 €	62.500,00 €	31.000,00 €
Amurrio 3. taldea	42.800,00 €	24.000,00 €	18.800,00 €
Laudio 1. taldea	93.900,00 €	62.500,00 €	31.400,00 €
Laudio 2. taldea	93.900,00 €	62.500,00 €	31.400,00 €
			146.000,00 €

	EKARPENA
LAUDIO	62.800,00 €
AMURRIO	83.200,00 €

146.000,00 €

Azkenik, Ghiro jaunak jakinarazi du iragarkiak argitaratuta daudela eta elkarrizketak abenduaren 14ko astean egitea aurreikusita dagoela.

Elkarrizketetan, Gustavo Candal (SARTU) eta sustapen ekonomikoko teknikariak hartuko dute parte. Udal bakoitzean, nahi duenak har dezake parte, egutegiaren berri emango da eta udal bakoitzak elkarrizketen kokapena adierazi beharko du, eta osasun- eta urruntze-baldintza guztiak bete beharko dira.

Eta beste gairik ez dagoenez, bilkura amaitutzat eman da goian adierazitako eguneko **08:52ak** direnean. Era berean, presidenteak eta neuk, behin-behineko idazkariak, izenpetu dugu akta hau, eta neuk idatzitako guztia egiaztatzen dut.

**KUADRILLAKO PRESIDENTEA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.
BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA. GIANFRANCO GHIRO ALONSO**

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE